


ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



Ludotekak
eta euskara

urtarrikak

8

bertso saioa

**Principal Antzokian
Eguerdiko 12etan**

**Andoni Egaña
Igor Elortza
Jon Sarasua
Iñaki Murua
Sebastian Lizaso
Unai Iturriaga**

Sarrerak abenduaren
19tik aurrera salgai
Herrikoia eta Axular
liburudendetan edota
Bagare euskal txokoan

Sarrerak:
Egunean bertan
700 pta
Aldez aurretik
500 pta

Aurkezlea

Joxerra Garzia

antolatzailea:



babesleak:



GEU GASTEIZ



**GASTEIZKO
BERTSO
ESKOLA**



egin



Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia



geu GASTEIZ abendua

Gasteizko 0,7aren aldeko batzordearekin hizketan

6. orrialdea



Gasteiztik Durangora literaturan zer berri

16. orrialdea



Gasteizko ludotekak euskaraz

inkestak

...eta askoz gauza gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

2,9^{tik} 3,1^{era}

UDAZKENAK EKARRI

zigan berria. Gasteizen euskal hiztunon jariora, euskararen presentzia, kale gorrian edo beltzean, % 29koa omen da. Ez dakit asko edo gutxi den, baina, nire ustez, hemengo euskaldunon kopurua ez dator bat gure hirian entzun eta hitz egiten dugunarekin, gasteiztarren euskararen ezagutzaz askoz ere zabalduago eta hedatuago dagoelako.

Nik, nire aldetik, uste dut Gasteizko eta Arabako hainbat denda, taberna eta zokotan, estadistika datu horren marka gainditu dezakegula. Hala, goizean, egunkaria General Alava kaleko "Egunsentia" izeneko prentsa dendan erosten dut, edo bestela Siervas de Jesus kaleko "La Revista-n", nola ez, euskaraz. Gero, ogi gori-goria, labetik atera berria edota biologikoa erosi nahi badut Jesus Guridi kaleko "Artepan-en" bada bikote bat, solasaldi ederra eskeiniko didana, iladan dauden askoren askoren harriturarako eta tarteka beste euskaldunen baten gozamenarako. Handik bueltan, goizeko kafea hartzeko orduan ere badut euskaraz jarraitzeko aukera, besteak beste, Paz kaleko autobusen geltokiko "Parada" tabernan edota bestela, Foru Plazako kafetegian sartuz, horiñakirekin mintzatuz, lantzean behin Bernardo Atxaga solaskide izaten duen zerbitzariarekin, alegia.

Libreta eta diru kontuetan aritzen naizenean Postas kalean Gipuzkoa-Donostia Kutzako lehiatiletan etxean bezala aurkitzen naiz, kutx a horretan Gasteizen beste inon ez bezala jende pila entzun baitut euskaraz, jo eta ke. Vital Kutzako langile berri hainbatekin ere eroso aurkitzen naiz. Horiatariko batek esan zidan, berari euskaraz itauntzen -galdetzen- zion lehena neu izan nintzela, ea ba zeuek ere ausartzen zaretan eta ohore hori kentzen didazuen.

Dato kaleko bazterretan eta inguruetan ongi moldatzen naiz ttipi-tpapa gurean, "Mendia" optika denda bisitatzeak izugarritzko harrotasuna sortarazten dit, eta zer esanik ez, "Goya" gozotegian emakume helduarekin trufak eta ostantzekoak euskaraz eskatzeak ere. "Jolben-en" maitearentzat oparitzo bat erosi nahi izanik, aukeraketa zail eta luze horretan euskara peto-petoan ezin erosoago sentitzen n aiz. Haraxeago, Dato hotel txikian Zimmerman nagusiarekin parra-parra arituko naiz, eta zer poza, ardo beltz bikain eta mokau goxo bat ahoratzea "JG" tabernan sartuz, Mario Egiguren mutil tantaia eta elegantea euskara jantzian aritzen zaidanean. Orobat,



"Saburdi-ko" nagusiarekin ere eroso. Beste hainbat daudenik ezin ahaztu, hala nola, "Naroki" jatetxean bazkaltzen jarri ezker, etxekoandre-arekin dotore jardungo dut. Halaber "Servi Ruta-ko" sukaldariarekin. "Axular-ekoa" aipatu beharrik ez dagoela iruditzen zait baina hand ik jiran San Prudentzio kaleko "Urbietan" jantzi dendan sartuz gero, ama eta semeak patxada ederrean lagunduko didate zalantzak uxatz en. Ondoren, aldameneko "Dakar" tabernan ere etxeko alabarekin, apain. Beste horrenbeste Paz kaleko "Gaur" kafetegiko giro patxadatsuan, irlandes kopatxoaren lurrin artean txirrindularien gorabeheraz, bapo. "Unanue" zapategiko emakume dotorearekin ere airoso. Eta abar, eta abar. Abastos plazan ere haragi, arrain, barazki eta frutak erosteko orduan euskaldunak ez dira falta. Eta, zer esanik ez, marisko "freskue" eta aparta nahi izanez gero Pio XII. kaleko "Orio" mariskeriara hurbilduko nintzateke.

Alditan, horrelaxe moldatzen naiz nire lantokiaren inguruko bazterretan, baina Gasteizen barrena badira beste hamaika lagun eta txoko euskaraz iharduteko, euskararen kale presentzia areagotzeko, hala nola, bidaia bat prestatzeko orduan "Corte Ingles" agentziako arduradunarekin, Inaxio Errandonea pilotariaren lehengusuaarekin, gogotik mintzatuko zara. Beste hainbeste, Xabier Santxotena edota Jesus Oleagaren jatetxetara hurbilduz gero. Baita Trebiñoko Lapueblan "Palacios" jatetxean muturra sartuz gero ere, familia osoa piri-para aitoren hizkuntzan arituko zaizu. Berdin-berdin "Remelluri" edota "Torre de O a" Errioxako bodegetako ateak igarota. Era berean, Maiuetako "Brezal" ardaidegiko alabarekin topo egitekotan.

Ezpairik gabe, aise gainditu dezakegu 2,9ko listoa. Gure esku dago. Hau bai ezin diezaiogegula beste inori leporatu. Goazen ba, kalean etxean bezala animoso, euskaraz mintzatzera.

Lema badakizue zein den, eman eta zabal ezazue. Euskara.

Roberto Oñederra

Radio Vitoriako Emisio eta Produzio arduraduna

geu GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92



elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo **Koordinatzailea:** Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakel Peña, Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onandia **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

Kalea mintzo

Toki publikoak protesta ekintzetarako?

AZKEN bolada honetan gure hiriko lorategiak, oinezkoen esparruak edota elizetako dorreak protestaleku bihurturik ikusi ditugu gasteiztarrok. Toki publikoek horrelako mezuak zabaltzeko bozgorailu paregabea eskeintzen digute. Baina jokabide hori egokia ote den galdetuz Gasteizko ikastola baten ingurura abiatu gara.



1. Zer iruditzen zaizu toki publikoak erabiltzea protesta-ekintzak burutzeko?

2. Bestelako biderik al dago protestak oihartzunik izan dezan?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



MARIA MUR
ikaslea

1. Oso ondo, jendeak arazoak ezagutu behar ditu horiei aurre egin ahal izateko. Zerbait konpontzeko informazioa behar.

2. Zenbait ikastola eta institutuk egiten dituzten grebak oso modu onak dira protestatzeko.



BERTSOAK

GAIA:

Txotxongiloak

EGILEA: David Aguilar

DOINUA:

R. Ordorikaren «zenbait bertso xeble»rena



**abenduko eguna
argitu orduko
iluna**



I
Udalak ekarriak
txotxongiloak datoz
datorren maiatzean
alkate izan asmoz
Mintegi eta Pizarro
hor bertantxe dagoz
eta euren alboan
Rojo eta Lazcoz.

II
Gure Politxinelak
borrokan sarturik
(gaurko gure erregea
Josean izan ezik),
alkatea izatea
badute ametsik
«Cuerda» nork mugitzen du'n
jakin nahi nuke nik

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MIKO

izozkiak



IKER BARON
ikaslea



AINTZE FORONDA
ikaslea



ARGIÑE GOROSPE
ikaslea



ANDER ELORZA
ikaslea



KARMELO AVILA
telefonikako
langilea

1. Oso ondo.
Gizarteak arazo
horietaz kontzientzia
hartzen du.

2. Protesta hauek
gizarteratzeko biderik
eraginkorrenak
komunikabideak dira.
Horiek egiten dutena,
berriz, sinestezina da:
ixilik geratzen dira

1. Ondo, jende
gehiagorengana iristen
dira. Dena dela, toki
horiek errespetatu
behar dira.

2. Bai, jendeagehiago
bustitzea eta paso ez
egitea. Protestak
bultzatzeko biderik
onena jendearen
ardura eta inplikazioa
bilatzea da.

1. Oso ondo.
Protestatzeko era
baketsu bat erabiltzen
dute inor molestatu
gabe

2. Bai, gose grebak,
errepideak moztea,
kirol saioetan
pankartak jartzea,
kotxe karabanak hirian
zehar klaxona jotzen
eten gabe ibiltzea

1. Ondo, baldin eta
protestatzeko arrazoia
justifikagarria bada

2. Komunikabideek
maneiitzen dute,
nolabait, mundua.
Penagarria da
komunikabiderik
gehienak Estatuaren
menpe egotea

1. Ondo, beste inon
horrelako gauzak
egiten badituzu ez da
inor enteratzen. Azken
finean, horixe da
helburua.

2. Bai, baina ez dago
leku publikoetan
protestatzea
bezalakorik.



Postariak ekarria:

San Martin auzoa eta euskara

GEU GASTEIZ aldizkariaren urriko alean, «auzorik auzo» izeneko atalean, Gasteizko San Martin auzoari buruzko erreportai bat argitaratu zen. Erreportai polita, benetan, eta eskertzekoa, San Martinen bizi garen euskaldunoi, gure auzoaren berri geure hizkuntzan ematen digulako.

Alabaina, bada bat, Estibarizek emandako erantzunen artean, nik neuk behintzat, tokitik kanpo ikusten dudana. Erreportaiaren egileak gure auzoak duen aupegirik itxurosoenari buruz galdetzen dionean, Estibarizek honako hau erantzuten du hitzez-hitzez: "...beste auzoetan baino giro euskaldunagoa nabaritzen da kalean, arestian aipa bezala, bizkaitar eta gipuzkoar ezkonberrien etorrera dela eta. Kalean euskara egiten da San Martinen". Egia da, izan, euskarak leku handia daukala San Martineko kale eta parkeetan gertatzen diren solasaldietan. Baina gure auzoko euskararen zabalkunde hori, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako ezkonberriengatik dela esatea, ez dut uste gehiegi asmatzea denik, edozeinek baitaki lurralde bi horietatik etorritakoen artean askok ez dakiela euskararik eta, aitzitik, jatorriz arabarrak izan eta San Martinen bizi direnen artean, ugari direla euskara ezagutu eta egunero erabiltzen dutenak.

Duela hiru hilabete inguru, Estibaritzen hitz ber-berak entzun nizkion politikari bati. Hain zuzen ere, azken boladan euskararen aurka eraso gogorak burutu dituen alderdi politiko baten buruzagietako bati. Ez San Martin auzoari buruz, jakina, Gasteiz osoari buruz baino. Baina mezua berdin-berdina zen, alegia, Arabako hiriburuan entzuten den euskara Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritakoak bakar-bakarrik egiten dutena dela. Politikariak, dena dela, badakigu nolakoak diren eta, maiz, egiarekin zernolako haserreak dituzten. Baina auzo-elkarteko kide batek, egi osoa ez den horrelako gauza bat esateak zer pentsa ematen dit. Kasualitate hutsa ote? Aldez aurretik adostutakoa, akaso?

Kontxetako parkean entzuna dut, San Martin auzo-elkarteko zuzendaritza, goian aipatu dudana euskara behin eta berriro erasotzen duen alderdi politikoan bete-betean sartuta dagoela. Eta horrez gainera, elkarteko lokalak uzten dizkiela alderdi honetako buruzagiei euren ekintza elektoralak burutu ditzaten. Gaur arte ez dut horrelakorik sinestu nahi izan. Bene-benetan higuigarria eta sinestezina iruditzen baitzait herrigintzarako dauden baliabideak alderdikierietan erabiltzea. Baina orain, ... ikusitakoak ikusita...

Josu Erkorena • San Martineko auzokidea



HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea.
Tfnoa. 284196
01005 GASTEIZ

0,7^{aren aldeko} Gasteizko batzordea



herrialde batzuk bere garapen maila mantentzeko edo haunditzeko herri azpigaratuen zapalkuntza beharrezkoa dute. Beraz, iparraldeko herrialdeen garapena hegoaldekoen pobrezia-ri esker lortzen da.

NBEk erabakia atzera

NBEk (ONUK) 1972. urtean erabaki zuen ekonomikoki egoera txarrean dauden herrietara Barne Produktu Gordinarean %0,7a bidaltzea. Hogei urte beranduago, ordea, Rio-ko Gailurrean proposamen hori atzera bota zuten. Orduetik hona Espainako estatuan Barne Produktu Gordinaren %0,26 baino ez zaie ematen herrialde horiei.

Azaroaren 11an, 1995. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrak erabaki behar zirenez, 0,7ren aldeko batzordeek hainbat ekintza antolatu

“ NBEk 0,7 ematearen alde agertu arren, Rioko Gailurrean proposamen hori atzera bota zuten ”

Estatuko beste herri eta hiri batzuetan bezala, Gasteizen ere 0,7aren aldeko batzordea eratu da, eta batzorde horiek guztiak 0,7 Plataforma osatzen dute. Azaroaren 11an Estatuaren Aurrekontu Orokorrak erabaki behar zirenez, herri azpigaratuetara Barne Produktu Gordinaren %0,7 emateko presioa egitea dute helburu, herri horien garapenerako pausu batzuk eman ahal izateko. Gasteizko Los Herran kalean 0,7 batzordeak antolatutako akanpadara hurbildu gara beraiekin horretaz hitzegiteko.



NAZIOARTE mailan nabariak dira ipar-hegoaldearen arteko desberdintasunak; herri garatuetan kotxe berria erosi beharra edo oporretan nora joatea erabakitzea arazo larriak iruditzen zaizkigun bitartean, hegoaldean 40.000 ume hiltzen dira gosez egunero, eta 1.100 miloi gizakik ez dute ur edangarririk ere.

Egoera hau gaurko sistema ekonomiko mundialaren ondorioa da;

dituzte estatuko hainbat hiri eta herritan, Madrilgo akanpada nabarmendu delarik.

Akanpada Gasteizen

Gasteizen, 0,7ren aldeko batzordekoek, konzentrazio batzuk egin ondoren, Los Herran kalean akanpada bat antolatzea erabaki zuten; horren helburua zen estatu mailan egindako ekintzen alde agertzea, eta arabarrak gaiarekin sensibilizatzea.

Akanpadan asanbladak, debateak, erakusketak eta bestelako ekintzak egiten zituzten; beraientzat garran-

**Hurrengo urte-
rako 0,5 eskatzen
dute, bi urte barru
0,7 lortzea nahi
duten arren**

herrialdeetan iraunbizitzea inportanteena den bitartean, iparraldeko herrialdeen bizimoduak ozono gerusako zuloak, negutegi efektua, kutsadura eta beste arazo ekologiko batzuk sorterazten ditu.

Beraz, planetan aberastasunen banaketan dagoen desberdintasuna nabaria den arren, nazioarteko sistema ekonomikoak arazo ekologiko inportanteak ere sortzen ditu, eta Gasteizko 0,7 batzordeko kide batek adierazi digunez, "planeta

guztiona da, ez soilik herri garatueta gaudenontzat".

Ongi bideratutako laguntza

1995eko Estatuko Aurrekontu Orokorretan Barne Produktu Gordinaren %0,5 herri azpigaratueta bidaltzea eskatzen dute, "baina datorren urteko %0,7a igotzea beharrezkoa da". Gainera diru hori beharrezkoak diren arloetara bideratu beharko da; 'hezkuntza, osasuna, plangintza familiarra, ur edangarria eta elikagaiak batez ere'. Laguntzak era egokian banatzen direla ziurtatzeko nolabaiteko kontrola beharrezkoa da.

0,7ren aldeko batzordekoen ustez, "%0,7a ez da gehiegi, baina planetaren iraunbizipenarako pausu garrantzitsu bat litzateke, eta beharrezkoa da Hirugarren Munduko herrialdeen gutxieneko garrapen bat lortzeko".

Bestalde beraiek aipatu digutenez, "inportanteena ez da soilik diru bidaltzea, oraindik garrantzitsuagoa da hegoaldeko herrialdeko jendeari irakastea egun dagoen egoeratik ateratzen. Esan ohi denez, inportanteena ez da arraiek ematea, ezta arrantza egiten irakastea, arrantza egiteko tresnak egiten irakastea baizik".

Itziar Martinez de Santos



PACK GAZTEA

Orain jantzi ditzakezu 6 hilabetetako Multilens lente botatzekoak, Ixurkari Bakarrek bi ontzi eta kutxatila, zoratzeko prezioan. Eta gainean, Folding izeneko Ray Banak jarriko dituzu kitorik. Hori guztia, Mendia Optikak eskaintzen dizkizun zerbitzuaz eta garantiaz, jakina.




MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
Gasteiz

ASTROLOGIA

Iñaki Gauna

Zerutik lurrari begira



Solstizioa: Eguzkiak ekliptikaren inguruan duen itxurazko mugimenduan, inklinazio austral edo boreal handiena harrapatzen dueneko urte-sasoia, egun luzeenari (ekainaren 21 edo 22) eta laburrenari (abenduaren 21 edo 22) dagokiena (Ipar hemeziferioan)

- A Eguzkiarteera neguko solstizioan
- B Neguko ilargia: behean
- C Eguzki-arteera udako solstizioan
- D Neguko ilargia: goian
- E Eguzki-sarrera udan
- F Eguzki-sarrera neguan

G.S. Hawkins-ek konputagailu bidez aztertu zuen Stonehenge-ko zutarrimultzoa eta egundoko konputagailu megalitikoak zela konturatu zen.

ORAINGO HONETAN, abendu gaudela, egokia iruditu zait neguko solstizioari buruzko zenbait ohar egitea.

Gure arbasoek eguberria ospatzen zutenean oso gogoan zeukaten zernolako harreman zegoen gizaki eta izadiaren artean eta jai horiek kontzientzia hori isladatzen dute. Paganoak izango ziren baina guk baino askoz hobeto ulertzen zuten lurraren eta armoniaren mintzaira. Gaur egun, berriz, gabonak kontsumismoaren eta hipokresiaren isla baino ez dira.

Neguko solstizioan ziklo bat amaitu eta beste bat abiatzen da. Dakizuenek, solstizio-eguna daukagu urteko egun laburrena, hau da, eguzki-ordu gutxien dituen. Hortik aurrera, eguna luzatzen hasten da berrit, eta beraz, urte berria datorkigu. Gure egutegiaren gorabeherak direla eta, solstizioa astronomikoa, hots, benetako solstizioa, ez da izaten beti egun eta ordu berean, baina abenduaren hogeitabat eta hogeitabiren artean izan ohi da. Aurten, esaterako, neguko solstizioa abenduaren 22an 02:23etan izango da, eta ez Santa Luzia egunean, esakerak dioten bezala: "Santa Lucía, la que acorta la noche y alarga el día".

Neguko ohitura zahar gutxi geratu zaizkigu. Horien artean, aipatu beharrekoak dira Olentzeroa, eguberriko subila edo zuzia, eta uraren erritua. Olentzeroa, berez, urte zahararen pertsonifikazioa da. Gasteizen, adibidez, urte zaharreko gauean kalera irtetzeko esaten zitzairen neska-mutikoei urteak egunak baino begi gehiago dituen gizona ikustera. Hasiera

batean, beraz, Olentzeroa urtero berritzen diren izadi-indarren errepresentazioa zen, zaharkitutako guztia botatzeko bide ematen zuena eta urte berriari agurra ematen ziona. Erroman solstizio-egunetan gure Olentzeroren antzeko pertsonaia zeukaten. Herriak irainak egin eta jo egiten zuten. Azkenik, hiritik kanpo bota eta bakarrik uzten zuten. Horrela agur esaten zitzaion ziklo zaharrari.

Urte zahararen erretzen diren egurren sinbolismoa guztiz ulertzea ez da batere erraza. Batetik arbolaren arketipoa daukagu, ortziaren euskarri eta zutabea, lurrean errotuta baina gure buru gainean zerura begira altxatzen dena. Bestetik, suaren esanahia, elementu garbitzaile eta purifikatzaile gisa.

Ura ere, esangura handiko elementua da, eta udako solstizioan (San Juan egunean) zein negukoan agertzen zaigu. Ura, ahalmen sortzailearen isladapena da. Nafarroako zenbait herritan ur berriaren aurkezpena egiten da urte berria hastearekin batera: "Ur goiena, ur barrena, urteberri egun ona".

Euskal Herriko leku askotan mofak egiten ziren urte zaharari agur egiteko. Esatebaterako, Gasteizen Manolo Andiñon-ek egutegiko azken orria hartu, tolestu eta hankartearen jartzen zuen buztana bailitzan. Segidan, txistularia zenez gero, instrumentua jotzen hasi eta batetik bestera mugitzen zen. Bitartean hurrek atzetik jarraitzen zioten kandelak piztuta urte zahararen ipurdia erre nahian edo ("erre-pui-erre").

KAN GEU RO AK

Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz

22 61 18

Itziar

22 61 18

ARRATSALDEZ

Oihana

25 30 35

GAUEZ

Esther

27 84 57

ASTEBURUETAN

Olatz

25 61 20

Zeu ere haurrak zaintzeko prest baldin bazaude, deitu ezazu 26 25 92 telefonora edo idatzi 1691 postakutxara.

GARNICA



FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

Ubidean Bagare mintzagai

EUSKAL TOKIA

Laister zazpigarren urtea beteko du Bagare Euskal Tokiak euskararen alde lanean Gasteizen. Hori dela eta, azaroaren lehen asteburuan Ubidean etxe bat hartu eta mintegitxo bati ekin zioten Bagareko hogeitahamar lagun inguruk. Urte hauetan burutu dituzten ekintzak aztertu eta baloratu zuten bertan eta baita hemendik aurrera eramango duten lan ildoaz eztabaidatu ere. Baina nor hobeto eurak baino asteburu horretakoa kontatzeko.



Zeozter gehiago jakin nahi izanez gero deitu 251084 Bagareko telefonora.



LEHENIK,

Txepe-txen teoriari buruzko azalpen batzuk jaso genituen AEDko elkartekide den Julen Arexola-Leibarengandik beste elkarte askok hartu duten bidea eza-gutzeko. Barne egoera izan genuen ezta-baidagai gero. Larunbat arratsaldean hasi zen benetako azterketa eta eztabaida prozesua dei dezakeguna; Bagareren aniztasuna dela eta ez dela eta horren konponbidea izan zen auzia. Taberna, bere giroa eta bertara hurbiltzen den jendearen inguruko gaia iganderako utzi genuen.

Asteburu osoa, ordea, ez zen hausnarketa hutsa izan, ondo pasatzeko aukera ere egokitu zitzaigun eta. Izan ere, bazkariak, txulelada ederrak eta gau-pasa polita goatzeko aukeran izan ginen. Gainera, bi bertsolari ezagun, hogeitabat ezezagun (gu geu, alegia) eta trikitilari paregabeak izan genituen lagun. Ordu

txikitan egin genuen kantaldi zoragarriak goia jo zuen, dudarik gabe. Igandean pala saiotxo bat antolatu genuen artean sasoian zegoenarentzat eta beste hainbat burtazio.

Erabaki bakarra hartu zen, hots, mintegia ez zela erabakiorra izango, erabakiak hurrengo asanblada batek hartuko baititu. Aniztasuna dela eta ez dela, batzorde pare bat osatu zen, asanbladan proposamen bana aurkeztu beharko dutenak, alegia. Tabernaren giroa aldatzeko ere, dagoeneko lanean hasi den beste batzordetxo bat sortu zen. Ildo horretatik, esan behar dizuegu batetik, tabernaren aldaketak ez direla epe laburrean nabaritutako eta bestetik, bertan giro euskalduna sortzea (edo birsortzea) guztion ardura dela.

Beraz, aipatu asanblada ospatu ostean azalduko dizuegu zertan gelditzen den Bagare. Ala ez gare?

Bagare

Benito Ginea
liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51
ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ
Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu
GASTEIZ
INPRIMATEGIA

Udala eta Euskal Taldeen arteko harremanak

Gasteizko udaletxean euskararen erabilera bultzatzeko mozio bat duela hamaika urte onartu zuten aho batez. Orduko hitzarmena aztergai azken hilabeteotan



DUELA 11 URTE, 1983an PNV, PSOE, HB, EE eta AP alderdi politikoek euskararen erabilera sustatzeko mozio bati baiezkoa eman zioten. Udalaren zein bere menpeko sail guztien ihardueran elebitasunaren aldeko apostua egin behar zela adierazten zen aho batez onarturiko testu horretan. Euskal Herrian Euskaraz taldeak mozioaren azterketa zehatza egin eta kezkatua agertu zen udalak euskararekiko izan duen jarreraren aurrean. Horren ondorioz, Gasteizko talde euskaltzaleei dei egin zien denak batera udal ordezkariekin bildu eta ia dozena bat urte lehenago hitzartua berrikusi eta bertan burutzeke dagoena gauzatzeko.

Horrela, irailaren 23an Gasteizko Udaletxeko talde politiko guztiak, PSOE izan ezik, batzartu ziren EHE, AEK, IKA, GEU elkarteak, BAGARE, Magisteritza eskolako Euskara Batzordea, Irale eta Udaberriarekin. Aurreneko bilera horretan adostasuna lortu zen hainbat punturen inguruan. Euskal taldeek, bestalde, Euskara Batzordea eratzeke beharra plazaratu zuten.

Bilera honen ondorioz, lan batzorde bat osatu da Gasteizko ordenantzak lantzeko asmoz. Geroztik hainbat bilera egin dute elkarrekin aipatu taldeek eta alderdi politikoek udal ihardueran euskararen erabilera nola indartu aztertzen hasi direla. Oraindik ere asko dago ibiltzeko. Egia esan, saio hauek guztiak txalogarriak dira. Geure aldetik, ondoren ere hala izatea nahi genuke. Hala bedi!



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA

Telefonoa: 23 17 13

Gasteizko udaletxean aurkezturiko mozioa bere ihardueran euskara erabiltzeari buruzkoa • Gasteiz, 1983

1. Euskara batzordea eratzea

Batzorde honek helburuak markatuko ditu eta beraien jarraipena egingo, beharrezko akordioak aurkeztuz Udaleko sail erabakitzaileei.

2. Euskararako Udal Teknikariak kontratatzea

Lehenengo eta behin, itzultzaile-zuzentzaile bat kontratatuko da; gero, beharrek hala agindu ahala, kontratazio gehiago egingo da.

3. Euskara zerbitzua

Zerbitzu hau Idazkaritza Nagusiari atxekirik egongo da, gainerako negoziatuburuekin elkarlanean jardungo duelarik.

4. Dokumentazioa

Elebitasuna ondoko arloetan, hurrenez hurren, jarriko da indarrean:

- Ohizko eta ezohizko udal batzarren aktak.
- Batzorde Iraunkorraren aktak.
- Xedapen ofizialak.
- Kanpo agiria.

5. Errotulazioa

Errotulazioa egingo da elebitasuna kontutan hartuz udaletxean zein udalaren menpeko elkarteetan honako abiaburu hauek kontutan izanez:

- Kaleko seinalezioa.
- Udaletxearen barruko seinalezioa (Dato, Plaza Berria,...)
- Udalaren menpeko elkarte zein zerbitzueta seinalazioa, leku publikoei eta garraio publikoari lehentasuna emanez.

6. Gasteizko Udalerriko zein bere kaleetako izendegia

Gasteizko udalerriko zein bere kaleetako izendegia euskaraz eta gazteleraz idatziko da.

7. Aurrekontua

Euskaraz eta gazteleraz idatziko da.

8. Hirigintzako plangintza orokorra

Euskaraz eta gazteleraz idatziko da.

9. Argitalpenak

Udal Informazioari buruzko Boletineko azala, editoriala eta informazio ofiziala euskaraz eta gazteleraz argitaratzen hasiko dira.

10. Harrera eta aholkularitza

Harreraemale elebidun bat kontratatuko da hiritarren euskarazko kontsulta guztiak erantzuteko. Bere kokapen egokia Euskara Batzordeak aztertuko du.

11. Langilegoaren euskalduntzea

Euskararen Normalizaziorako Legeak dioenari jarraikiz eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntzaz, bere langilegoa euskalduntzeko eta alfabetatzeko plangintza orokorra beteko du udal honek, hemendik bost/hamar urtetara administrazio elebiduna eduki ahal izateko. Programa honen egitekoak hauek ditugu:

- Egungo egoera aztertu.
- Eginkizunak, ikastaroak, azterketak eta egutegia erabaki ahaleginei etekinik handiena ateraz eta helburuotarako aurrekontua kontuan izanez.
- Sail bakoitza saiaturiko da, epe laburrera, funtzionario euskalduna bat gutxienez izaten.
- Batzordeak jardunbiderik egokiena zehaztuko du

helburu hauek guztiak gauzatzeko.

12. Liburutegia

Euskara eta euskararako irakurketa, ikasketa eta ikerketarako sailak irekiko dira gizarte etxeetan. Euskaraz eta euskararako irakurketa, ikasketa eta ikerketa lanak erostea bultzatuko da eta epe luzerako helburuak aztertuko.

13. Agiritegia

Agiri elebidunak biltzeari elingo zaio.

Euskararen erabilpena irakaskuntzan

1. Haurtzaindegiak

Udal honek elebidunak izateko bidea emango die haur guztiei horretarako behar diren erabakiak eta baliabideak bermatuz. Hori lortzeko, ondorengo hauek baliatuko ditu:

- Euskara Batzordeak eratutako irakaslegoaren euskalduntze programaketa mailakatua.
- Antzeko esperientzietan izandako pedagogia egokia.
- Egoeraren azterketa eta egutegia.
- Helburuetarako aurrekontua.

2. Helduen irakaskuntza

Helduentzako bekak, laguntzak eta dirulaguntzak areagotu beharko dira, programa eta errentagarritasun orokorra kontutan harturik.

Euskararen gizarte erabilera

1. Kultur Sailaren bitartez eta Euskara Batzordearen arauak kontutan hartuz, ekitaldi publikoak eta kulturalak euskaraz eta euskararako sustatuko ditu udal honek.

Hala nola, hauek:

- Euskarazko literatura lehiaketak.
- Euskarazko irratir lehiaketak ikastetxe zein ikastoleetarako.

Olagibel aretoan eta gainerako udal kultur aretoetan antolatutako ekitaldi elebidunak.

2. Udal honek euskararen gizarte erabilpena bultzatuko du merkataritza, kultura, elkarte, kirol... programetan dirulaguntzen bidez.

3. Gizarte etxeak

Gizarte etxeetan irekiko dira udal euskaltegiotarako aretoak zein euskaldunzaharrek eta euskaldunberriak elkartzeko tokiak, beste instituzio batzuekin eta egun dauden edo geroan sor litezkeen pedagogi elkarteekin bat eginik.

4. Musika etxea

Herri musika tresnen irakaskuntza bultzatuko da.

5. Bertsolari eskola

Arabak Bertsolari Eskola bat indartzeko programaketa eta dirulaguntza aztertuko da.

Jarraipena eta Kontrola

1. Euskara Batzordearen ardura da.
2. Euskararen Normalizaziorako legeak dioenari jarraituko zaio.

Kanpaina

Euskara Batzordearen bitartez, umeei bereziki zuzendutako euskararen erabilpena eta irakurketa sustatzeko kanpaina bat burutuko du udal honek.



J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Karlos Subijana



KARLOS SUBIJANA BEOBIDE.

Gasteizen jaioa da, 1.963an, Martxoaren 7an. <Hogeita hamaika urte ditut, uf!>. Lautadakoak ditu gurasoak. <Ama, Gebarakoa; aita, Oreitiakoa>. Familia Elgea eta Oñatitik datorrelako ustean dago. Adurtzan bizi da. Ezkondua. Medikua du emaztea. Bigarren hauraren zain daude. Zubererazko agurrak eta baliatzen ditu nahizu-nahizu. <Han ikasi bainuen -pixka bat-, euskaraz hitzegiten eta>. Hamabost urte bete arte, zenik ere ez zekien gure hizkuntza.

Entzunez ikasi zuen euskaraz. Ikastarorik egiteke. <Oso entzumen ona dut. Berehala hartzen dut doinua; eta esanahia>. Irakasle da Gasteizko Udalaren Folklore akademian. Eskolak ezezik, makina bat kontzertu eman behar izaten du.

Azkenerako, nekea zaio.

Ez dago giro Karlos afaltzera gonbidatzen. Esango nuke! Jatun txarra da oso. *Fast-food*-a du gustoko, amerikarren zabor-jaten hori alegia: hamburgerrak, *hot-dog*-ak, *french frish* -ak eta gisako abarrak.

Bizikletan ibiltzea du afizio handia. <Ni txirrindularia naiz. Musika bezainbeste maite dut bizikleta. Txirrindulari profesionala izatea gustatuko litzaidake>. Ibiltzea du gogoko. Ikustea, aldiz, gero baino gero gutxiago. Gustoko taldea ere badu. <Lehen Lemond-ena, "Z". Orain, "Mercatone 1" edo horrelakoren bat>. "Euskadi" Taldea. <Fiktizioa da.

Fundazioarena eta, jendeak dirua uztearena eta... nahiko dirua uzten dugu beste leketan. Gobernuak pagatu dezala, propaganda egiteko>.

DUZUN BIZIORIK HANDIENA?

Etzanda egotea.

ETA BERTUTEA?

Oso pertsona ona naiz; tontoa. Ematen du oso pertsona zakarra naizela, baina oso-oso inuzentea naiz. *Inkreiblea*.

FAMATU ADISKIDE BATEN IZENA EMAN BEHAR BAZENU?

Ez dakit oso famatu den, baina Niko Etxart. Niretzat oso famatu da.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?

Amnistia; oraindik!

ZER ESKATZEN DIOZU ZUK ZEUK BIZITZARI?

Urte pilo bat osasunarekin. Horrek kezkatzen nau. Urte pilo bat bizi nahi dut nire familiarekin, emaztearekin eta alabarekin eta. Inportantea da.

ETA ESKAINI?

Nire musika. Eta lettrak! Letrak ere egiten ditut. Nahiko letrista ona naiz.

ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?

Etorri behar duen haurra ondo etortzea. Baina ondo etorriko da; beraz, ez da kezka.

GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai. Esan zidaten bileretara joateko eta, baina ezin dut. Ondo, oso ondo iruditzen zait Elkartea.

EGUNKARIEN BAT?

"Egin".

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Irlandan egin nahi ditut oporrak, kaleetan jotzeko.

ETXEKO LANAK NOREN KONTURA?

Nahiko ondo konpontzen gara horretan. Bion artean; oso denbora gutxi daukagu eta. Nire amak ere egiten ditu batzuetan.

ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

NONGO EUSKARA DA ZUREA?

Segur aski, batua, baina leku askotatik hartutakoa; uste dut. Doinua gustatzen zaidan hitza neureganatzen dut, inolako prolema-rik gabe. Barbaridadea izan daiteke, baina niri horrela gustatzen zait eta uste dut ez diodala inori minik egiten; jendeak ulertzen du eta nahiko.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Jendeak kritikatzeko aldera kritikatzeko. Esan nahi dut, zurrumurruak eta... Nahiago dut gauzak aurpegira esatea.

JAKI GOXOREN BAT.

Niri zabor-jakiak gustatzen zaizkit: *hamburger* eta *hot-dog* eta horrelakoak. Noizean behin behar dut horrelako janaria. Esaten dute hamburgerrak egiteko kanguro-haragia erabiltzen dela... asko gustatzen zait. Jeneralean oso gutxi jaten dut, denbora gutxi dut eta. Patata frijituak eta horrelako paketeak bai.

FILMEREN BAT?

Uste dut nire bizitza osoan pare bat aldiz joan naizela zinera. "7 novias para 7 hermanos" ikusi nuen 15 urterekin eta ez dakit berriro joan naizen. Ez naiz inoiz joaten.

AKTORE IZENIK ALFERRIK IZANGO DA GALDETZEA, BEHAR BADA?

Ez, ez, telebistan ikusten dut botatzen dutena. Eta nor da aktore ona?... asko daude onak! Ez dakit nola deitzen den: "Harry, el Sucio", nola deitzen da hori?

(Clint Eastwood, *erantzuten diot*). Oso ona da hori, oso gogorra. Gustatuko litzaidake horrelako bat izatea, gogor-gogorra, bera bezalakoa, horrelako begiradarekin eta.

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Nire anaiarekin txirindularitzari buruz hitzegiten nuenean eta amets egiten nuenean: bera hasiko zela lanean, bizikleta erosiko zidala niri, biok ibiliko ginen, eta agian ni profesional izango nintzela. Total, ez dute hainbeste balio bizikletek. Oso polita zen.

ZEURE GORPUTZ ATALIK POLITENA?

"Neure"? Ai, dios! Oso tasunean nahiko ondo nago, baina... begiak. Oso gutxi ikusten dute baina ez dira itsusiak.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Bai horixe. Musiko on baten talde barruan egotea. Ona... onak asko daude; famatua esan nahi dut. Beti egon naiz hor, ia-ia ailegatzeko, ia-ia heltzeko, eta behera erori naiz. Oraindik, nik uste, posible izango dudala. Ez da ametsa; ametsa baino gehiago da, baina *a ver!*

GIZARTE ARLOAN, ZER ALDATUKO ZENUKE?

Dena. Ez dakit zer aldatuko nukeen. Pobrezia kenduko nuke. Eta Hirugarren Munduan -ez hemen, Hirugarrenago den munduan-, miseria hori kenduko nuke. Ez dakit nola, baina nolabait.

MUNDUAN DEN DENBORA GUZTIA**IZANEZ GERO, ZER EDO NORA; EDO ZERTARAKO?**

Ni musika egiten gustora nago. Musika egingo nuke, bizikletaz ibili eta familiarekin paseatu. Besterik ez.

LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?

IDAZLEREN BAT?
Ez dut inoiz irakurtzen. Lotsagarria da!

ZERGATIK DA LOTSAGARRIA?

Bada, ez dakit zergatik. Baina mundu guztiak irakurri behar du, ez? Urtero liburu bat gutxienez eta hori. Nik ez dut inoiz irakurri. Oso gaizki ikusten dut, eta kostatzen zait irakurtzea. Kostatzen zait eta ja ez zait gustatzen irakurtzea. Nahiago dut jendeak niri gauzak kontatzeko. Arrazoiak duzu: ez da lotsagarria, ez. Irakurri nuen Groucho Marx-en liburu bat, oso polita; barre asko egin nuen. Ez naiz izenaz oroitzen.

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA?**ZER DUZU EGUNEROKO ERAGINGARRI?**

Martxan jartzen nauena goizean? Gustatzen zaidala bizirik egotea. Hori nahikoa da, ez? Ni jaikitzen naiz eta esaten dut: "Tira, aurrera!"

ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ ESATEA ZU HIL ETA GERO?

Uiii! Gauza gutxi. Oso ona nintzela esango dute, beti esaten baitute. Musiko ona izan naizela, bai: "Ze ondo jotzen zuen!".

Jose Miel **E**lustondo



LUR ZABALEAN
Aingeru Epalza



JAUN AGURGARRIA
Manu Lopez



EGUN OSORAKO
POEMAK
J.K. Igerabide



SUTE HANDI BAT
ENE BIHOTZEAN
J. Iturralde



PERRAULTEN IPUINAK
CH. Perrault



ZER DELA ETA ZER DELA?
X. Etxaniz - A. Villate



ALICEREN ABENTURAK
LURRALDE MIRESGARRIAN
L. Carroll

DURANGORAKO NOBEDADEAK:

Patxi Zubizarreta, Ipuinkaria
Manu Lopez, Andoni eta Maddalenen
komediak



irakurri
kalitatezko literatura

PAMIELA
argitaletxea

Errekaleor: Hegohaizeak dakarren

zenbait datu

BIZTANLEAK:

500 inguru. Guztira 193 familia bizi dira bertan, jatorri ugarietakoak, baina azken hamar urteetan osatuak, gehien bat.

LANBIDEAK:

Mota guztietako langileak dira. Errekaleorreko biztanleak, oro har, diru maila apalekoak dira; etxebizitzak ere Gasteizko merkeenak dira.

HISTORIA:

Duela 37 urte, Gasteizek bizi zuen industrial boomari irtenbide eman nahian, Karlos Abaitua jaunak eraiki zuen Errekaleor auzune hau. Baina izen hau nahiko berria da. Izan ere, 1954. urtean, eta bertaratu zen senar-emazte gazte andanek sortuko omen zuten ume jariora zela eta, "mundo mejor" ezizenez ezaguna izan zen.



AGIAN ez zara bertora inoiz hurbidu, baliteke non dagoen ere ez jakitea. Izan ere, haraino joatea ez da oso normala. Gasteizko biztanle arruntarentzat, hiria, hego ekialdeari dagokionez, Adurtzan amaitzen da. Baina pixka bat

haraino, munduko zaratatik at, auzo lasai eta bizi bat aurki dezakegu, eta nahi izanez gero, auzokideekin solasaldiren bat eduki. Horixe bera da guk egin duguna, hain zuzen ere, Auzokideen Elkarteko lehendakari den Rosarekin.

ERDIALDETIK HAIN URRUN EGOTEAK ZER DAKARKIO ERREKALEORKO BIZTANLE BATI?

Ezer txarrik ez. Autobusez berehala gaude nahi dugun lekutan, eta, horrez gain, nahiz eta hain biztanle gutxi garen, gizarte zerbitzurik ez zaigu falta: medikuntza, kirol guneak, gizarte eta kultur etxeak... Auzoa oso lasaia da, baina lasaitasun horrek ere umeak kalean nahi bezela jolastea baimentzen digu.

ZERBAIT FALTA AL ZAIZUE?

Ez gara kexu. Futbol zelai bat da orain, agian, falta zaiguna, baina proiektua jada egina dago. Bestalde, auzora heltzeko bide

bakarra den Errekaleor kalea duela bi urte zabaldu eta egokitu zuen Udalak; orain ez daukagu arazorik.

LASAI BIZITZEKO LEKUA, BERAZ?

Bai, batez ere umecentzat. Haurrak lasai-lasai atera daitezke pilotarekin, bizikletarekin, nahi duten bezela ibiltzeko. Oso gustora daude bertan. Alde txar bakarra da etxebizitzak oso txikiak direla; baina baita merkeak ere. Gasteizen zaila da etxe bat lortzea, eta hau leku egokia da batez ere jende gaztearentzat.

BI HITZ, BI ERANTZUN: DROGA ETA TRAFIKOA

Drogari dagokionez, taberna bakarra



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

lasaitasuna



egonda, arazorik ez dago. Baliteke drogazalaren bat egotea, baina guk ez dugu gainerako auzoen neurriko arazorik zentzu horretan. Eta trafikoaz zer esan. Sarrera bakarria dagoenez, Errekaleorrek ez dauka trafiko arazorik. Berton bizi garenok soilik etortzen gara hona.

AUZOKO BIZTANLEEN ARTEAN BIZI AL DA EUSKARA IZENEKORIK?

Bai, bizi da bai. Errekaleorren ez dago ikastolarik, baina asko dira bai Adurtzakoan, bai beste ikastola batzuetan ikasten duten haurrak. Ez hain gazteak garenen artean ez da hainbestekoa euskararen garrantzia, baina haurren kopurua oso handia dela eta, itxaropentsu gara etorkizunari begira.

ETA ZEIN KULTUR EKITALDI ANTOLATZEN AL DUZUE?

Antolatu baino, betidanik daudenek irauten dute. Egutero monitoreak ditugu haurrei beti zerbait berri erakusteko. Bestalde, gizarte etxetxo bat daukagu, kultur etxea, zinema, emakumearen heziketarako eskola, gazte taldea... Hain jende gutxi izateko, nahiko ondo zaintzen gara.

Asier **P**erez de **K**arkamo

Diragarkirik
onenak
euskaraz
datoz

EGUZKILORE

Kutxileria, 44
Tel. 28 68 40
GASTEIZ
JANTZI, OSAGARRI
ETA OPARIAK



IRUNA
TABERNA
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

JANTZI ETA
OPARIAK

Kutxileria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

IÑAKI JAUREGIALTZO-ren
KERAMIKA LANAK



CORRERIA, 62
Tfnoa: 26 69 04
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiairen ertzean Tfnoa: 25 03 52

★
IZ
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

restaurante • jantoki
DOS
HERMANOS


1887an sortua • Jose Ramon Agiriano

madre vedruna, 10

☎ 13 29 34
13 44 46

01008 gasteiz

kalitaterik
onena !




kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3

Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA

HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

Durangoko Amets Gasteiztarak

Gasteizen sortutako hiru liburu Durangoko azokan salgai



“Andoni eta Maddalenen Komediak”, “Ipuinkaria” eta “Sagarraren hausterrea”. Manu Lopez Gaseni, Patxi Zubizarreta eta Gerardo Markuleta. Durangoko Euskal Liburu eta Diskaren azokan aurkeztu diren hiru liburu eta hiru idazle. Haurrentzako bi liburu eta poesiazaleak ez direnek ere gustora irakurriko duten olerki bilduma ekarriko ditugu ondorengo lerrootan.

“**ANDONI** eta Maddalenen Komediak”, hauxe da Manu Lopez Gasenik idatzi duen azken liburua. “Komediak eta ez komediak, dramatizazio lan laburrak baitira”, zehaztu du egileak. Maritxu Berritsu irratsaiorako 35 pieza txiki asmatu zituen Manuk eta horiexek, hain zuzen ere, osatzen dute Durangon aurkeztutako liburuaren mamia. Gasteiz irratiko programa horretako haurrek antzeztu zituzten idazlan horiek bi urtetan zehar, ostegunero ostegunero, eta “eurek izan zuten harrera ikusita denak liburu batean biltzea bururatu zitzaigun”. Baina asmo hori gauzatu ahal izateko aldaketa batzuk egin

behar izan zituen Manuk, “gauza bat baita ipuin bat irratiz entzutea horrek dituen baliabide guztiez baliatuz eta beste bat, oso bestelakoa, nork bere etxean irakurtzea”.

Istorio horien arrakastaren arrazoia argi dauka idazle gasteiztarak: “Andoni eta Maddaleni gertaturikoak kontatzen ditu liburuak, ikastolako kontuak, jolastokiko haserreak... horrexegatik, umeek hurbileko kontua bezala ikusten dute”.

Argitaratu berri den liburu honek bi helburu ditu: batetik, gaztetxoek irakurri gozamen estetikoak lortzea; bestetik,



**Portal
del
Rey
9**

GASTEIZ

TXIRRINDUZ



★Txirringak

★Txirrindularientzako jantziak

★Osagarriak

Judimendi etorbidea, 12 • Tfnoa 28 73 48
01003 • GASTEIZ

**Andoni eta Maddaleni
gertaturikoak umeek hurbileko
kontua bezala ikusten dituzte**

Manu Lopez Gaseni

eskoletan testu horiek antzeztea. "Istoriok laburrak dira eta beraz, ez dute prestaketa lan askorik eskatzen antzeztuak izateko", azaldu du Lopez Gasenik. Gainera, liburuak ikasturtearen kronologia jarraitzen du kurtsoko aste bakoitzari testu bana baitagokio.



Bidea prestatzen

Patxi Zubizarretaren azken liburua "aitzakia txiki baten inguruan bildutako ipuin sorta da". Aitzakia herri txiki bateko eskola da. Haur gutxi joaten da bertara eta neguan iritsita, umeak aspertzen dira atsedenaldietan jolastokira irten ezinda. "Orduan andereñoak kilker bati buruzko ipuin bat kontatzen die. Ondoren, alderantziz gertatzen da eta umeek andereñoari beste ipuin bat kontatzen diote. Gero, ipuinak aldizkari batean jasotzen dituzte, hortik datorkio "Ipuinkari" titulua", azaldu digu Patxik.

Pasadizuak narratzen ikasle batek baino gehiagok dihardu. Izan ere, Iñaki, Ihintza, Eneko, Xabier eta gainerako ikasleek ipuin bana azaltzen dute. Gaiak oso anitzak dira: ekologia, heriotza, hiriarren

**Nire liburua aitzakia
txiki baten inguruan
bildutako ipuin sorta da**

Patxi Zubizarreta

eta herriaren arteko ezberdintasunak... Hala ere, Patxik ez zuen gai zehatzik garatzeko asmorik, "pertsonaiek berek ekarri behar baitute gaia".

Haurrak gogoan izanda egin da liburua, oso bisuala eta alaiak delako. Alde horretatik, oso pozik azaldu da Zubizarreta: "Ipuin bakoitza asmakizun batekin hasten da alboan marrazki bat duela. Gainera, lagun batek egin dituen marrazki hauek izugarri alaiak dira", esan digu irudiok erakutsiz.

Gauza jakina da haur literaturgintzak bezero gehiago duela helduenak baino. Batzuen ustez, ordea, haurrentzat lan egiten duten idazleak ez dira iristen helduentzako literatura lantzen dutenen mailara". Patxi Zubizarretak argi ikusten du umeentzako literaturaren maila oso altua dela Euskal Herrian eta gainera "haurrak literaturara erakarri behar ditugu, eta horrela, egun batean, Gerardo Markuletaren olerkiak irakurri eta ulertu ahal izango dituzte", adierazi digu irripartsu.

Hautalanerako poemategia

"Sagarraren hausterrea" da Gerardo Markuleta-Jon Iribarrik Durangoko azokan eraman duten liburua. Izenburuak berak ematen digu nahikoa informazio barrukoaz: "Sagarra da bizitzaren alde positiboa, zerbait fresku, naturala. Hausterrea, errautsa, berriz, guztiz kontrakoa. Poesia alde positiboa da eta gizartea, berriz, olerkigintzaren gainean dagoen presioa, legea..." Eta Gerardok azaldu digu horren aurrean nola jokatu.

Liburua etxe baten modura dago antolatutik; lehengo zatia ataria da eta azkena ganbara. Tartean hiru zati gehiago daude. Olerki liburu honen lehenengo zatia katezismo modukoa da, "laikoa, jakina!". Gaur egungo gizartean



deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak


Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia



Sagarra da bizitzaren alde positiboa, hausterrea, guztiz kontrakoa
Gerardo Markuleta

nola jokatu agertzen digu bertan aholkuak emanez, hitano femeninoan idatzitako aholkuak, hain zuzen.

Poema erotikoek osatzen dute bigarren atala. "Ez dago pornografiarik. Poema erotiko-sinbolikoak dira baina oso ulerterezak". Hirugarren zatiak liburuaren titulua eta muina agertzen ditu eta "akaso, zatirik zailena hori litzateke".

Markuletaren iritziz, aurreko liburuan hasitako garapena ondo ikusten da lan honetan eta "bere barruan ere nolabaiteko garapena dagoela esan daiteke. Lehenengo poemak sinbolikoagoak dira, erritmoa, espresibideak etabar oso landuta daude; gero hori lasaitu egiten da eta kolo-kialtasunera doa".

Ondo baino hobeto daki Gerardok jendeak atzera egiten duela liburuen aurrean baina "hau hautalanerako poemategia da, olerkizaleak ez direnek ere gustora irakurriko dituzte atal batzuk", esan digu.

Horietaz gain, Julio Cortazar-en ipuin baten itzulpena ere Durangon aurkeztuko du Markuleta. Bere ustez, itzulpengintzan hil ala biziko apustua egin du euskarak. "Irakurleari aurkeztzen diogu euskarak ematen duena edo euskara etxerako geratzen da eta beste gauzetarako hor dugu gaztelera, frantsesa edo ingelesa. Itzulpen-lan horren bidez Gerardo saiatu da isladatzen euskarazko itzulpengintzak izan duen garapena.

Leire Lopez de Aberasturi

geure txaloak

GASTEIZEN BERTAN,

hainbat jende ari da euskarari bultzadatxo bat eman nahian. Merkatal mundua, ordea, orain gutxirarte jorratu gabea zen.

Azken egun hauetan, Vital kutxak batetik eta Alegria autobus konpainiak bestetik, kanpaina bana hasi dute bertan euskarari lekua eman diotelarik.

Hona hemen, bada, geure txaloa. Hemendik aurrera, txokotxo honetan euskaltzaleok euskararen alde egiten diren ahalegintxo horiek txalotzeari ekingo diogu.

Ondo egina!



Antonio Alegria, 65 eta Felix Alegria, 55, Alegria hermanos autobus konpainiako jabeak dira. Arabako Pipaon herrian jaioak, EAEko bazterretan txangoak antolatzen dituzte konpainiak dituen 55 autobusetan.



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**Cerveceria
Alemana**

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

esaldia asmatu

Jar ezazu letra bakoitzaren lekuan alfabetoan atzean duena eta esaldi bat irakurri ahal izango duzu:

H J Z R S Ñ K Z M

H J Z R S D M

CH T Y T

Magdalena

Erantzuna

Ikastolan ikasten duzu

hitz zopa

E T K A I B N I G D
L S X I C C L A L O
E O U I K X X E A R
F T B G M X H U B D
A X K I E O A K X O
N O K B I A N B U K
T A I A K X A U U A
E B F P F B K A A I
A B X K X O U E M E

Bilatu oihaneko 5 animaliren izenak

Mikel Bustamante

Erantzuna

elefantea
dortoka
lehoia
sugea
Tximino



Zergatik oraindik hiltzen dituzte elefanteak, baleak, otsoak...?

Ander Ruiz

HILE HONETAKO

galdera hauxe da: zergaitik hiltzen dituzte oraindik elefanteak, baleak, otsoak, eta beste animalia mota batzuk? Adibidez, elefanteei aprobetxatzen dizkiete letaginak bakarrik eta horretarako hil behar dituzte. Horrela, elefanteak eta beste animalia asko urteak eta urteak daramatzate hiltzen eta horrela azkenean animalia pilo bat desagertzea lortuko dute zeren animalia batzuk estingizioan daude eta.



Elena Compañon

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA

elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ean



Zeu ere sukaldari

Marrubizko mermerlada

Osagaiak: marrubiak eta azukrea.

Marrubiak garbitu eta moztu. Pisatu. Azukrea bota (pisu berdina) eta hozkailuan sartu.

Hurrengo egunean atera, erdiko sutan jarri. Irakiten hasten denean sua toperaino jeitsi.

Ordu t'erdi beranduago dena prest



asmakizunak

Estitxu

BASO BERDE
batean
beldtza dendan
eta etxean gorria
Zer da?

BERE BARRUAN
nago eta ezin naiz
sartu barruan,
Zer da?

**Oraingoan ere
ABENDAÑO
ikastolako
gaztetxoek
bidalitako
lanak izan
ditugu.
Eta zu?
noiz animatuko
zara?**

HAUR BATEK galdetzen dio bere amari

- Zergatik da aita burusoila.
- Asko pentsaten duelako, seme
- Eta orduan, zergatik duzu zuk haibeste ile?

Iker Elorza

HAU DA
errekluta bat eta beste errekluta batekin aurkitzen da eta esaten dio:
-Kaixo Kepa! Bost duro utziko didazu?
-Ez, bi besterik ez daukat.
-Berdin dio, emazkidazu eta hiru zor didazu.

Jonathan Gutierrez

KALEAN BI
lagunek topo egiten dute eta batak besteari galdetzen dio:
-Nora zoaz eskailera horrekin?
-Supermerkatura
-Eskailera batekin?
-Bai prezioak oso altuak direla esan didate.

Iñigo Muñoz

ESATEN DIO lagun batek beste bati:

- Zure etxean otoiz egiten al dute?
- Ez nere amak ondo prestatzen ditu janariak.

AUTOBUS geltokian soldadu batek gizon bati esaten dio:

- Perdone, pasara por aqui el 25?
- No, lo siento, el 25 estare en Vizcaya

Jonathan Gutierrez

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnos: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



Iratxe Bidaiak

Gorbea 12 • Tfnos: 22 00 16 • Fax: 24 84 07
GASTEIZ

abenduko ofertak ➡

Aste bat: Hegazkina + hotela
zorionak eta urte berri on

TUNEZ 30.900
KUBA 59.000
KANKUN 69.900
BRASIL 75.000
SANTO DOMINGO 69.900
CARTAGENA 83.900
NEW YORK 86.000
BANGKOK 97.200

Haurrek euskaraz jolasteko txokorik badute Gasteizen



Garai guztietako haurrek izan dute aukera, arazo handirik gabe kale, plaza, belardi eta bestetan jolasteko, baina gaur egun hiriak oso aldaturik daude eta zaila xamarra izaten da bertan modu naturalean jolastea. Horregatik sortu ziren ludotekak, eta hau izango da ere erreportaia honetan garatuko dugun gaia. Judizmendi gizartetxeko Igone Olarte eta Iban Astondoarekin hitzegin dugu eta haxe kontatutakoa.

LUDOTEKA jolasera egokitutako espazio bat da, jostailuak, material ludikoa, lagunak eta ludotekako langileak biltzen dituena.

Igone Olartek eta Iban Astondoak honela esan digute: "Ludoteka gela bat da eta bertan umeak sartzen dira jolasteko eta beste hurrekin harremanetan jartzeko; oso garrantzitsua da umeari jolasten irakastea eta besteak errespetatzen."

Jolasa funtsezkoa

Funtsezko iharduera da jolasa haurren bizitzan, jatea eta arnasa hartzea bezain garrantzitsua. Olgatzea, dibertitzea, ikertzea, sortzea eta bilakatzea da jolastea.

Hazten, besteengan biltzen eta garatzen laguntzen du jolasak. Bere burua ezagutzeko jolastu du haurrak, besteak haintzat har dezaten inguruko mundua aztertu, bereganatu eta menderatuz.

Gaur eguneko gizartearen egoeragatik zaila gertatzen da umearen jolasa modu naturalean burutzea: familien izaeragatik, gizarte beraren dinamikagatik (kale, plazetako segurtasun eza, gurasoen lana...) Horregatik sortu ziren ludotekak: orain umeak jolasteko txoko bat du.

Gasteizen 10 ludoteka daude, gizartetxe bakoitzean bat. 5 urtetik 14ra bitarteko hurrei zuzendua dago ludoteka. 3 txandetan sailkatzen dituzte haurrak adinaren arabera. Eta txanda bakoitzak joku mota batzuk erabiltzen dituzte. "Jolaserako hainbat ditugu: bizitza imitatze txokoa (etxea, hospitala...), adierapen txokoa... hala ere, tailerrak, ibilaldi eta txangoak, festak egiten ditugu".

Jolaserako hizkuntza

Hizkuntzari dagokionez, esan daiteke Judizmendiko ludotekan D, B eta A ereduko umeak joaten direla. Umeen %13ak euskaraz hitzegiten du, %38ak elebidun jarduten du eta %48ak gazteleraz hitzegiten du.

“Ludotekak hizkuntz ereduari egokituak daude bertan euskaraz, gazteleraz e eta bietan batera hitz egitea dagoelarik”

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

**Euskarak jolas-
teko ere balio du,
ez baita ikastolako
gauza soilik**

Txanda bat D ereduan ematen dute eta guztiak elebidunak dira; haurrek euskara hitzegiten badute beraiekin euskaraz hitzegingo dute, bestela erderaz.

Bi ludotekarietatik batek gutxienez euskalduna izan behar du.

Txandak euskaraz emateko helburuaz galdetu diogunean, argi erantzun digute Igonek eta Ibanek: "Haurrak ohitzen dira euren artean eta monitorearekin euskaraz hitzegiten. Orduan ere kontagio antzeko bat sortuko da erderaz hitzegiten duten haurrekin, ohituko dira euskara entzutera eta baita euskaraz gauza batzuk esatera-eskuak garbitzera noa- bezalako esaldi sinplea. Gurasoak ere gustora daudela esan dezakegu".

Ume euskaldun gehienentzat euskara ikastolako gauza izatera mugatzen da, matematika, historia...moduan hartzen baitute; ikastolan bakarrik hitzegitekoa. "Horregatik guk erakutsi nahi diegu euskaraz ere jolastu daitekela eta ez dela ikastolako gauza soilik".

Gurasoek ere parte hartzeko asmoa dute beren haurren jolasetan.

Orain bost ludoteketan gauza oso berezi bat zabaldu da, ludoteka igandetan ordu betez irekitzea alegia, umeak gurasoekin etor daitezen. Horrela gurasoek bidenabar ikusten dute bere seme-alabek nola jolasten duten.

Ludotekak hizkuntz ereduari egokituak daude bertan euskaraz, gaztelaraz eta bietan batera hitz egitea dagoelarik"

Susana **C**alleja



LUDOTEKAK GASTEIZEN	A	B	D	Haurrak guztira	Euska- razko txandak
JUDIMENDI	%48	%38	%13	158	1
EUROPA	%51	%36	%11	193	1
ARRIAGA	%45	%20	%35	190	4
IPARRALDE	%32	%30	%38	182	2
ARIZNABARRA	%49	%45	%6	162	3
ABETXUKO	%60	%0	%40	60	0
LANDA TXO	%73	%8	%18	96	0
SANSOMENDI	%81	%0	%19	170	0
ADUR TZA	%72,5	%0	%27,5	120	0
ARANA	%75,5	%0	%24,5	122	0

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industriala

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 00	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Barailbar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



OHIZKO LEKUETAN SALGAI
AURREZ: 1000 pzta.
40 libera.
EGUN BEREAN: 1200 pzta.
52 libera.
HAURRAK: 300 pzta.
12 libera.

ANCIETA KO
BELODROMAN.

5000 个常用字

好歌

5³⁰etan: MAIDER eta ALAITE • AIRE AZIZPAK • TUMBADITO, SALSATUEA • PAULAZPAK • MIKEL MARKEZ • PEKATA MINUTA • JABIMUGURUZA • INAKI EIZMENDI • GOLDENARTEL QUARTET • BERTSOLARIAK • BITOR AIAPE • ANDRA MARI KORALA • 8^{etan}: ZARRAMA • BAP • LIN TEN TAUN • ETSAI AK •